

"HITZEKIN. Denok euskara doan" dinamika abian.

Korrikaren ingurumarian, AEK-k abian jarri du doako ezagutzaren unibertsalizazioaren beharra jorratuko duen dinamika ere. Ekimenaren gakoa da azpimarratzea euskara ikasi nahi duten herritarrek dohainik jarduteko parada izan behar dutela.

Dinamika horren lehendabiziko aurkezpena gaur goizean burutu da Bilbon; bertan parte hartu dute, batetik, Alizia Iribarrenek, AEKren koordinatzaile nagusia, eta Asier Amondok, Korrikaren arduraduna, eta, bestetik, Garbilan eta Iberdrola enpresetako hainbat langilek. Izan ere, gaur, dinamikaren ildoetako bat azaldu da ("HITZEKIN. Denok euskara doan. Langileok prest" izenekoa): AEK-KORRIKAtik elkarlan-bide bat landu da ELA nahiz LAB sindikatuekin, eta heldu den ikasturterako doako ikastaro laburrak antolatuko dituzte, hainbat lantokitan prest dauden langile-taldeenekin. Berez, urtero eta Euskal Herriko lantoki askotan ezaguna den dinamika biderkatu nahi dute ekimen honen bidez. Gehiagorengana iritsi nahi izango dute eta, batez ere, dinamikaren xedea bistaratu nahi da ekintza praktikoko horien bidez: "Euskal Herrian euskaraz biziko bagara, helduen euskaraz aritzeko gaitasun egokia zabaltzea gakoa izango da, baita euskaltegietan zerbitzua doan jaso ahal izatea ere"

Langileek adierazi dutenez, euskararen normalizazioa garatzeko ezinbesteko esparrua da lan-munduarena, eta berau euskalduntzeko urrats zehatzak aldarrikatu dituzte. Haiek ere prest daude pausoak emateko ("langileen eskubideen eta bermeen aldeko borrokan kokatzen dugu hizkuntza-eskubideena"), baina, era berean, aipatu dute norbanakoen boluntarismoa gainditu behar dela. Lan-mundua euskaldundu nahi bada, ezinbestean Administrazioen aldetik erabaki ausartagoak hartu beharko dira: "Behar-



beharrezkoa da langile guztiei euskara ezagutzeko bideak jartzea, horretarako denbora ziurtatzea eta zerbitzu hori doakoa izatea”

Alizia Iribarrenek adierazi duenez, gaurko aurkezpena, eta abian jarriko diren ikastaro horiek, dinamika zabalago baten isla dira; aurrerago, ekinbide gehiago landuko dira, baita beste arloetan ere. Era berean, aurreratu du apirilaren 4an aurkezteko dela, dinamika honen barruan ere kokatu den Donibane Garaziko adierazpena. AEK ez ezik, beste euskaltegi askoren ordezkariak daude agiri horren atzean.

korrika.eus



ARABA

Arana kalea 30, behea
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleten kalea 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus